


2002-02-13
kioskoa**Pantxike Agirre****Beste bat**

Euskal Herrian izan zuen bereziki oihartzuna Enrique Villar Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak euskal irakaskuntzari buruz bezperan botatakoak —Espainiako hedabideetan nahiko ezagunak dira kutsu horretakoak—, beste behin polemika eraginez. «ETAren ordezkari belau-naldia bultzatzea» egotzi diola Villarrekin euskal hezkuntza sistemari zioen *El Mundo*-k; euskal hezkuntza «garbiketa ideologikoa» dela nabarmentzen zuen *El Correo Español*-ek; eta «Villar berrirori erasoan» zen *Deia*-k bi orritara eginiko titulua. Iritziarik apenas landu zen, ordea. *Gara*-k eta *El Mundo*-k egin zuten hizpide bana. Azken horren arabera, Villarrekin ez zuen bere adierazpenetan asmatu, baina, «arazoa hor da, ezin da bromatzat hartu, zerbaitek huts egin duelako eta huts egiten duelako hezkuntzan gazte asko oraindik 'kale borrokan' sartzen badira». *Gara*-k zioen, «irakaskuntzaren erreforma nondik nora joango den erakutsi du Villarrekin, zeina 'Espainia guztirako gaiak orokortzea tratatzen duen ikasgaien gehiegizko erregionalizazioa' zuzentzen saiatuko den».

PPren estatu eredua da, hain zuzen ere, Espainiako egunkariak nagusitzat hartu zuten gaietako bat, Gobernuak Kooperazioaren Legearen proposamena zabaldu duela-eta. Lege horrekin autonomiek EBn parte hartzeari betoa jarri nahi zaiola zioen *El País*-ek, eta «Euskadi, Katalunia eta PSOEn onespenean gabe» ezingo duela aurrera egin gogoratzen zuen; «batasun nazionalaren kontzeptu berri bat» planteatu duela Madrilek zioen *El Mundo*-k; Aznarrek «armonizazio autonomikoa bultzatu» duela *La Vanguardia*-k; eta *Abs*-k doinu positiboagoa bilatu zion: «EBko batzordeetan parte hartzea eskaini die Gobernuak autonomiei».

Egunkaria euskal duna 3.474. zenbakia**Ohorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administratzaile Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Inaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoloia Sanz**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**Batzorde Parekidea:** 72664 E. Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK** ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabie Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511**martintxo****hizpideak****PPren estatu eredua**

Elkarlan Autonomikorako lege egitasmoarekin Espainiako Estatuaren egituraketa autonomikoa behin betiko finkatu nahi bide du PPk. Autonomia erkidegoek goia jo dutela esatera dator PP; eskumen gehiago ez dutela izango, alegia. Eta, bide batez, autonomia erkidegoek Europar ordezkarietara izateko aukerari atea itxi nahi dio PPk. Elkarlan Autonomikorako legearen beharrik ez zegoen PPrene estatu eredua zein den jakiteko, baina argibiderik ematen du Espainiako Gobernuak izan dezakeen jokabideari buruz. Gaur egungo egitura autonomikotik abiatuta autogobernuan sakondu nahi duenari, behintzat, lehenbailehen zirrikitu guztiak itxi nahi dizkiola ematen du.



Jose Ignacio Palacios sailburua, atzo, Nafarroako Parlamentuan.

Palacios Justiziaren gainera

Auzitegien erabakiek ez dute kikiltzen Jose Ignacio Palacios Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria. Orain arte Parlamentuan egindako agerraldietan, behin eta berriz esan du irati lizentziak banatzerakoan zuzen jokatu dutela. Administrazio Gaietarako Nafarroako Auzitegiak Zangotzako emakidak emateko orduan oker jokatu zutela esan zuenetik, gaiak hitz egiteko lehen agerraldia zuen atzo Palaciosen Parlamentuan bertan. Besterik espero zitekeen arren, kontseilariak orain artekoari eutsi zion. Urrutirago joan zen: «Esan behar da epaileek ere huts egiten dutela». Argumentu horri eutsi eta helegitearen bidetik jarraitzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak. Beraz, oraindik ere, luze joko du Nafarroako irati lizentzien aferak.

Arma nuklearren aurkako protesta Eskozian

Erresuma Batuko Trident urpeko nuklearren Faslaneko basearen aurka protestan ari diren 121 lagun atxilotu ditu Eskoziako Poliziak azken bi egunetan; SNP Eskoziako Alderdi Nazionala eta Alderdi Sozialistako bi buruzagi barne. Arma nuklearrak lege kanpokoak direla salatzeke ari dira parte hartzen ehunka lagun gaur amaituko den protestan; horien artean, politikariak, apaizak eta Eskoziako zein Europako hainbat herritako ekologistak. Eskozian nuklearren aurkako jarrera indartzen ari dela esan dio EGUNKARIARI David Mackenzie antolatzaileak.



Eskoziako izaniko protestetako bat.

Urzaiz, Athletic uzteko zorian

Oraindik jokalaria lotzeko aukerarik badagoela esan zuen atzo Athleticen presidente Javier Uriak, baina «oso zaila» izango dela onartu zuen. Athleticentzat garrantzitsua da Ismael Urzaiz, baina zuzendaritza ez dago diru kutxa arriskuan jartzeko prest. Aurrelari nafarrak badaki bere kirol ibilbideko azken kontratuaren aurrean dagoela, eta ahalik ete etekin handiena atera nahi dio. Izugarritzko dirutza eskaintzen dioten taldeak ditu atzetik —Atletico Madril, Deportivo, Valentzia...—, eta ez dago aukera hori galtzeko prest. Athleticen ahalegina egingo duela esan du Uriak, baina jokalaria galdutzat ematen dutela ezin dute ezkutatu. Gelditu ala joan, lehenbailehen erabakitzea da orain komeni dena, ordezkaren bila hasi ahal izateko. Ez da erraza izango.